

Ikertzaile gazteen Zientzia Azoka

2014/05/22

Elhuyarrek antolatzen du eta 50 ikastetxek 2013-2014 ikasturtean landutako proiektuak erakutsiko dituzte. Era berean, parte hartzaileek egindako lanaren errekonozimendua jasoko dute.

Zientzia Azoka ekimena gazteek garatutako proiektuen azoka da. Ikasturtean zehar, taldeka, gazteek erabakitzen duten gaiaren inguruan arituko dira lanean: galdetzen, ikertzen, diseinatzen, eraikitzen, eta esperientzia berriak bizitzen. DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ziklo ertaineko ikasleek parte hartu dute, gehienez lau laguneko taldeetan antolatuta. Bidean, ikertzaile profesionalen laguntza jasotzeko aukera izango dute, abenturak eta bizipenak konpartitzeko, eta gazteen lana bideratzen laguntzeko.

Parte hartzaileak: Honako ikastetxeetako 50 taldek euren lanak erakutsiko dituzte: Hirukide (Tolosa), Cruces-Gurutzeta (Barakaldo), Amor Misericordioso (Sestao), La Anunciata (Donostia), Elorrioko BHI, Arizmendi (Eskoriatza), Begoñazpi (Bilbo), Ibaizabal (Durango), Lauro ikastola (Loiu), Lauaxeta (Zornotza), Zangoza eta Kataluinatik ere talde bat ere izango da haien lana aurkezten, Exporecerca azokan hautatutako hain zuzen ere.

Babesleak: FECYT, Gizarte Ekintza "La Caixa", Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Laguntzaileak: Tecnalia, IK4 Rsearch Alliance, UPV/EHU, Deusto, Mondragon Unibertsitatea, NUP, BTEK



Zientzia Azoka